

DEIALDIA, LAN POLTSA BAT OSAKETZEKO,
OLAZTI/OLAZAGUTIAKO ERBURUA KIROLDEGIAN
LARUNBATETAN ARITZEKO ATEZAIN/GARBITZAILE BAT
KONTRATATZEKO

Erburua-Olazti SLren Lehendakariak 2019ko apirilaren 3an emandako ebazpenean honakoa ebatzi zuen:

Erburua Kiroldegian aritzeko atezain/garbitzaile bat kontratatzeko deialdiaren oinarriak onartzea, urte betez (luzagarri).

Kontratoa laborala izanen da eta lan edo zerbitzu zehatzerako. Ordutegia larunbatetan goizeko 09:00etatik 14:00ak arte eta arratsaldeko 16:30etatik 21:00etara izanen da, malgua izango da zerbituaren beharren arabera eta dagokion ordaina izanen du.

Interesdunek Altsasuko Lan Bulegoan, Erburua kiroldegian edo Olaztiko Udaletxean, derrigorrezko dokumentazioa eta eskabidea aurkeztuko dute, baita aipatzen duten merituen egiaztagiriak **2019ko apirilaren 10aren , asteazkena, 14:00ak baino lehen.**

Betebeharrak: 1.- Nazionalitate espainarra edo EBko estatu batena.

2.-16 urte goitik eta erretiroa hartzeko derrigorrezko adina bete gabe.

3.- Lehen Hezkuntzako titulazioa.

4.- Lanpostuko eginkizunak bete ahal izateko gaitasun fisikoa eta psikikoa.

5.- Ezgaiturik ez egotea.

6.- Euskara ezagutza B2 mailakoa (ahozkoa). Frogatu ahalko da titulazioa aurkeztuz edo euskara proba gaindituz (ahozkoa). Proba **2019ko apirilaren 11n, osteguna,** egingen da Olazti/Olazagutiako Udaletxean, **goizeko 13:00etan.**

Kontutan izango da:

- Aisialdiko Begirale Titulazioa: 3 puntu.

- Kiroi eta Fisiko Jardueretan Titulazio Teknikoa: 5 puntu.


Hautagaiek test moduko proba teorikoa (50 puntu gehienez, 20 puntu gutxienez) gainditu beharko dute, proba baztertzailerak baitira. Bete beharreko eginkizunak, informatika eta herriaren ezagutzari buruzkoa izango da.

Proba **apirilaren 12an, ostirala,** egingo da, **goizeko 14:00etan,** Olazti/Olazagutiako Udaletxean.

Epaimahiak puntuazio gorena lortuko duen hautagaia kontratatzea proposatuko du. Gaindituko duten hautagai guztiekin Lan Poltsa osatuko da.

Olazagutian, 2019ko apirilaren 3a,

Sna/Fdo:Mikel Azkargorta Boal, Erburua-Olazti, SL Administrazio Kontseiluburua.



ERBURUA OLAZTI S.L.
IFK / CIF: B71132658
Plaza Garcia Ximénez, 1
31809 OLAZTI/OLAZAGUTIA